

Fray Bartolomeren *-na* konpletiboa: arazo linguistiko eta estilistikoak

ROBERTO MANJON - CARLOS DEL OLMO - JOSEBA GORDO

0. Hitzaurrea

Euskararen historia aztertzeko dagoen *corpus* idatzia oso zabala izan ez arren, testuetaiko asko oraindik ere sistematikoki, zehatz eta aspektu konkretuen gainean landu gabe daude. Halatzen, ilunpean irauten dute hala euskararen diakroniare nola gaur egungo egoera sinkronikoaren hainbat arazok eta eztabaidagaik. Horietariko bat, *-la/-na* konpletiboen erabilera mugatzen duten jokabide eta arauet loturikoa da. Iza ere, hurrengo lerroetan eremu hau hartuko dugu aztergai —dialektologia diakronikoaren eremuan, garai, hizkera eta idazle baten testuak abiapuntu— gure xede nagusia honako hau izango delarik: XIX. mendeko markinar autore baten obra nagusian —inguru hartako literaturan ez ezik, baita XIX.eko bizkaieraz idatzitako osoan ere corpusik zabalena eskaintzen duena— agertzen den *-na* konpletiboen erabilera aztertzeko corporusa aukeztea,¹ bai eta lehen pausua baino ez bada ere, behin behineko azterketa edo hurbilketa moduko saiakera bat egitea, gero inork azterketa sendoagorik egin nahi balu, agian baliagarriak diren norabide, lan-hipotesi, abiapuntuak eskeintzearren.

Fray Bartolome Markina Etxebarriko da gure autorea; mendebaldeko euskalki honen ezagupen historikoa egingo bada ezinbestean ezagutu behar den idazle bat dugu hau, eta bereziki —Bonaparte printzearen azken banaketa dialektologikoaren arabera— ekieldeko azpieuskalkiaz ihardutekotan. Arrazoia ez da soilik corpusaren neurria —mila orrialde baino gehiagoko argitarapena—, horretaz gain, behin baino gehiagotan aipatu den autore honen zenbait ezaugarri honelako lan baten xedeetarako oso interesgarri gertatzen baita: erakusten duen “berbetiaren” naturaltasuna (Mitxelena 1988: 118), garaiko aurreritzi linguistikoek eta erretorikek ukitu arren, antza denez, gehiegiz behartzen eta murrizten ez dutena.

-na morfema konpletiboa da, beste aldetik, bizkaieraren aspekturik bereizgaerriinetarikotzat jo izan den ezaugarri bat, nahiz eta euskalki honen bereizgarri gehienekin gertatzen den bezala, proposatu den bezain “partikularra” edo “bizkaitarra”—esklusibismoz² ez den.³

(1) Testuan ezertxo ere ez aldatzen ahalegindu gara.

(2) Gogora bedi, bada, *hiperbizkaiera* deritzan fenomenoa, lehenengo aldiz Mitxelenak aipatua baina orain arte behintzat, gehienbat Itziar Lakak —aldizkari honetan argitaraturiko artikulu-sail batez— aztertu zuelarik.

(3) Gipuzkoan ere erabiltzen omen da, Goiherriaino, hain ugari eta sistematikoa ez bada ere, UEUn

Guk, *Icasiquizunac* trilogian (markinar idazlearen obra osoaren ehuneko larogeitá hamarra) oinarrituko dugu geure lana, baina idazlearen erabilera osoaren ikuspegia emateagatik, Patxi Altunak egindako beste zatiaren azterketaren emaitzez (Altuna 1981, 1986) baliatuko gara “arazoaren egoera” ager dezagunean.

Corpusa tresna informatikoaren bidez erdietsi dugu, honela testuan dauden *-na* guztiak eta beraien testuinguru hurbila jasotzen direlarik. Saiakerak hurbilketa-ren jitea du eta ez da —ezin daiteke izan— azken hitza, jakina, honako arrazoi hauengatik:

1. Gure ustez behinik behin, datu objetibagarriak jasotzeko beharrezkoak diren metodo enpiriko-positiboak oraindik behar bezala garatu gabe daudelako humanitateei dagokienean, eta hala gertatzen da darabilgun linguistikaren alorrean, halako moduan non ikertzailearen subjetibilitatearen eremua zabalegi gertatzen baita.

2. Aukeratu dugun arloan gauzak objetibatzeko inon baino arazo larriagoak agertzen baitira, baldin kasurako diskurtsoaren esparru osoa eta moldeak guztiz eraginkorrik badira, eta halaxe dela uste dugu.

Hortaz, lan hau eremu berriei begira eta baliabide informatikoez egindako saika-keria xume bat baino ez da, arazo linguistiko baten inguruan zenbait posibilitate proposatuz.

1. *-naren* inguruko aztergaiak

Morfemaren erabilerari buruz gramatika, artikulu eta ikerketa diferenteetan esaten direnak laburbilduz honako euskarriak har daitezke kontuan:

1. *-na* erabiltzen da perpaus menperatua mintzagaitasunak markatzen duenean eta horregatik marka hori duten sintagmen antzera jokatzen du, inoiz ere ez galde-gaia denean.⁴ Ikuspegi hau topikoa izan da autore gehienetan. Hala ere, batzutan autoreek ez dute hau aipatzen,⁵ beraz, badirudi batzuk baldintza hau ez dutela hain ezinbestekotzat jotzen edo hain argi ikusten.

2. Perpaus nagusiaren aditzak, aditz-perifrasiak edo zentzu orokorrak menperatuko proposizioa zerbait *de facto* dela adierazten duenean.⁶ Faktibotasuna eta ez-faktibotasuna adierazten duten aditz-zerrendak proposatu izan dira,⁷ eta J.A. Mujikak halako faktibo koiuntural batzu aipatzen ditu André Barillori jarraiki, Hooper-en

Talde-lanean egindako liburu batek —*Euskal dialektoziaren hastapenak*— dioenez. A. Eguzkitzak (1988), Iztuetaren *Gipuzkoako dantzak* izeneko liburutik hartutako beste exenplu bat agertzen du, baina geroko beste batean, eta oraingoan Aita Diego de Alzok emandako datuak oinarri, *-na* honen erabilera-eremua askotxo zabaltzen duten lekukorrazk dakartzza, Arizkungoa, Lekarozteko, Exkalarreko eta Ataungoa hain zuzen.

(4) Sebero Altube izan zen lehena. Mondragoitarrari jarraituz, Azkuek (1969: 74) honelaxe dio: “El uso de estos sufijos *“-na”* y *“-nié”* exige también (como se ve por los ejemplos precedentes que la oración subordinada, por ello caracterizada, no constituya el miembro principal o inquirido de la proposición principal”.

(5) Arejita, Etxebarria, Irazola eta Uriarteak egindako liburuaaren kasua, Arejitatik, bere aldetik, aipatzen du bere liburuaaren 76 orrian.

(6) Azken urteotan gramatikariak ari izan dira lehenagotik esanak diren gauzok aire eta teoria linguistiko berrien arabera konzeptualizatzen, formulatzen eta ondorioz, izendatzen. Hau dela medio, aski ezagun bihurtu zaigu enuntziatuaren egia edo ziurtsuna aurresuposatzen duen aditzaren “faktiborasuna” delako ezaugarría. Formulazio hau Paul Kiparskyk eta Carol Kiparskyk egin zuten, harrez gero, Gramatika Sortzailearen ikuspegitik lan egin dutenek saritan plazaratu dute beren lanetan aski ezagun egin den arte.

(7) Altubek eskaini zuen aipatu liburuan lehenengoa, horren ostean gehienek zerbait esan dute horretaz, Azkuergandik hasita, ikus bestela bere hiztegian 66 orrialdean. Arejita konsultatzeko irakur 76 orrialdean.

terminoa jasoz “semifaktibo” izendatzen duelarik (*oroitu, jakin, sinetsi, pentsatu, esan, entzun...).*⁸

Dena den, gehiegizko generalizazioen kontra ohar erazten gaituzte: menperatua luze samarra denean *-la* ere erabiltzen omen dute idazleek.⁹

3. Perpaus nagusiak baiezkoa izan behar du, kasuren batean galdera izatea posible bada ere.¹⁰

Patxi Altunak oraintsu aipatu ditugun iritzi batzu aztertu eta kritikatzen ditu, guri txit mesedegarri zaigun testu-oinarri batekin: Fray Bartolomeren *Errijetako Olgueta, ta Daantzen neurrizco-gatz-ozpinduba*. Altunak, Altubek eta Azkuek esandakoak ez direla egia osoa dio, *-na* galdegaia den konpletiboaarekin agertzen delako, bai eta *-la* galdegaia ez denean agertu ere. Hurrengo adibideak ematen ditu:

Errazuazco olgueetiac, esaten da bada, ezdabela eragozten Jaungoicua serbidutia

Non “Errazuazco olgueetiac” galdegaia baita.

Dinodan guzta, eguiya dana, ezaututeco, inoc dudaric badauca, contu imini begui ta icusico dau...

Non konpletiboa galdegaia baita.

Ezda errez sinistuten, Sacerdote Jaunac, ta religiosuac, euren estadu Santubagaz aaztuta, saraubetan dantzan egiten daveela

Altunak, arazoarekin aurrera jarraiki, ondorio hauek erakusten ditu:

1. *-la* ezaugarria duten konpletiben aditz nagusiak eta *-na* dutenak ia berak dira, salbuespen bakarra *ukatu* izanik; aditz batzuk bietara jokatzen dute.

2. Aditz nagusiaren menpean *eta* batez koordinaturik *-na* eta *-ladun* konpletiboa agertzen dira.

3. Baiezko balioa duten ezezko perpaus nagusiekin *-na* agertzen da.

Eta Altunaren proposizio nagusia, baieztapen sendo baino, susmo “sendo” baten mailan dagoelarik: *-na* eta *-nik* mintzagaiaren direnean erabili behar dira; *-NIK* era-biltzeko horretaz gain perpaus nagusiak ezezkoa izan behar du.¹¹

Jose A. Mujikak Fray Bartolomeren lan beretik harturiko perpaus batzu aztertzen ditu (baita Barrutiaren eta D. Manuel Lekuonaren testu banakoak ere, hots hiru hizkuntz egoera, hiru sinkronia). Mujikak ez du mintzagaitasunaren eragina argi ikusten,¹² bere ustez, ondorio horretara heltzeko testua gehiegi behartu behar da konpletiboa mintzagai izanik ere *-la* erabil daitekeela eta.¹³

Bigarren froga gisa, autore batzuren testuak ematen ditu, eta banan banan hartu-

(8) Agian aditz batzu “semifaktiboak” direla esan ordez, eta horrela estrukturalismo ortodoxoari eutsi, faktibo/ezfaktibo oposizio binarioa ez dugula esan genezake eta bai Brondal semantista estrukturalista ez-ortodoxoari jarraituz, hiru ataldun oposizioa, elemento neutro bat duela, planteatu: faktiboa/ez faktiboa/ez “ez-faktiboa”.

(9) “Dana dala, *ziurtasuna* adierazten daben aditzak izan arren, esaldi menperatua luze samarrak diranean, konturatua barik, *-la* esaldi ezaugarria ere erabilten dabe sattitan idazleek, zaharrek eurek ere” (Arejita 1983: 77).

(10) “Esaldi nagusiak *baiezkoan* egon bear dau. Kasuren batzueta *itauna* izan arren ere erabilten da” (Arejita 1983: 76).

(11) Jakina, ondorio honetara heltzeko hemen aurkezten ez dugun argudio eta adibide-kate bat dakar.

(12) Altunari kontra eginik, baina Altunak berak ere ez dio argi ikusten duenik.

(13) “testu horietako bakoitzean *-(e)na* konpletiboa mintzagai ote eta *-(e)la* konpletiboa ez? Hori esateak testuak gehiegi behartzea dirudi. Konpletiboa mintzagai izanik ere, beraz, badirudi *-(e)la* nahiz *-(e)na* erabil daitekeela” (Mujika 1982: 17).

ta, bat eta beraren adibide paraleloak eskaintzen dizkigu *-la* eta *-na* kontestu berean erabiltzen dituztela frogatzeagatik.

Lehenago esan dugun bezala, Fray Bartolomeren *olgueetaren* edizio komentatu bi egin dira, bata Patxi Altunak paratua, bestea Luis Mari Mujikak. Mujikak esan ditugunak agertzeaz gain, elementu berri bat azaltzen du: *-la* konpletiboari eta *-na* mintzagaiari lotzen die, baina espozizioaren kateamenduarekin loturik, hau da, perpausak diskurtsoan duen balioarekin erlazionatuz; hona hemen bere ondorioa (1986: 43):

Muga garbiena, horretaz, *-la* atzizkiak hipotesiari erantzuten dionetan lego-ke, eta *-na*-k tesiari, noski, analogiak morfologian egin ditzakeen beste arazoak ahaztu gaberik.

Hortaz, galdegai-mintzagaiari buruzkoa ez da “muga garbiena” enuntziatuan eduki dezakeen zeregina baino, eta hau ere ez absolutoki, analogiak morfologiaren munduan beti zerikusi handia baitu.

A. Eguzkitzarena (1988) da jaso dugun azken lana. Gaur egungo ahozko euskara-ren lekukotasuna dakarren corpus labur¹⁴ baten emaitzak eskaintzen ditu. Aurreko ekarpeneren aldera, aportazio nagusi bat azpimarratu nahi genuke: konplementatzai-lea¹⁵ *-na* izanez gero, menpeko perpausetik ezin daiteke ezer atera, konplementatzaila da, beraz, perpaus-muga; baina, *-la* denean, bidezkoa da ateratzea, konplementatzaila ez da perpaus-muga, alegia:

*Badakit Peru daukazuna izena / Badakit Peru daukazula izena

Laburbilduz, badirudi, bada, lehen autoreek printzipio absoluto samarrak ematen zituztela. Baino tradizio hori kritikatua izan da, hala ere, oraindik ez da zehaztu faktore diferenteen eraginkortasun maila edo sujeto linguistikoaren aukera libreak norainoko eragina duen.

Kontu egin dezagun, dena den, iritzi eta ikuspegi guztiok arazoa aztertzeko corpusa osatzen duten obretarik zabalenaren datuak jaso gabe sortu direla, eta, hortaz, obra honetatik beretik ateratakoekin konparatu beharra dagoela auzi honetan aurrepausurik egingo bada. Funtsezko datuok ekartzeko ezinbesteko oinarri hori agertzea da hurrengo atalaren eginkizuna.

2. Corpora

(1) Banequi, ceubeen gogoco izango litizaatequezana, ez nintzateque, luzaro gueldi egongo. (I-VII-13).

(2) Munduba galduba daguana, ta ija inoc iraun ezindavena, (...), gueuc sarritan esaten dugun gauza da, neure entzula onac. Gueuc esaten dogu, casic isildu bagaric: Cristinauben artian daguala pede charra, (...) Gach oneec, eta gueijago cristinaubeen artian ugari dagozana, guztioc autor doguna, da. (I-1-5).

(3) Jaungoicuac beti eracutsi deuscu, gueure adilia, edo entendimentuba berez laburra dana, Ceruco misterijuac ezaututeco. (I-5-22).

(4) Gauza jaquina da, Cristinaubac, dotrinia ondo daquijanac, daucana Jaungoicuaren ezaubera gueijago. (I-7-11).

(14) 26 lekukotza, guztiak behintzat Eguzkitzak artez lortu gabe.

(15) A. Eguzkitzak berak darabilen terminologia erabiliz.

(5) Jaquin ezquiero Cristinaubac bere argaltasuna, miserija, ta ezer eza; (...) porpuerza Jaungoicoaren gracijsa, ta socurruba biar davena; erremedijo bagaric ill biarco davena; erijotza estuban bere vitzi guztizco pensamentu, berba, ta egun guztien contu zuzena, ta gogorra artuco deutseena; onentzat Ceruba, ta deungueentzat impenruba daguana; (I-7-25).

(6) Bainha pedeco eguija da, Jaungoicuac mundubaren asieran ezer bere ezeti eguindaco, espirituzco criaturaac diriana Aingerubac. (I-12-8).

(7) Bainha ezautuevan, gaisqui egun evana... (I-27-25).

(8) ¿Cegaz bada ezautu even mundubaren asieraco guizon areec Jaungoicuari obeditu biar jacona; inor ill biar ez dana; ezer oostu biar ez dana, ta... (I-27-31).

(9) Gueurez ezautaten dogu Jaungoicuamau, ta ondrau biar dana, (...); gauza onac egun biar dituguna; ta gueuri inoc eguitia gura ez doguna, inori egun biar ez deutsana. (I-28-8).

(10) Ta aitortutene dau gauza on guztiac Jaungoicuac berac bacarric mereciduten ditubana. (I-31-16).

(11) Orduban sinistuten dau, ta ezaututen dau, Jaungoico bat baino ez daguana. Cerubac eta munduba beriac ditubana, ta bere escubetan daucazana; asieraric, ez amairic ez daucana; guztiz Ona, Zucena, Jaquituna Misericordisua, ta guztien maitegarri bacarra dana (I-31-21).

(12) Bada Jaungoicuaren beraren esana da: Eleisa Ama Santiarri berac eracutsi deutsana; pedeco gauceetan Elisiac engaina ezin guinaizana; ta Cristaubeen Elisa eguijaren cimentu seguruba, ta pillar sendua dana. (I-33-2).

(13) Espiritu Saintubanac (...) esaten dabenian: Egon gaitezela guztio duda bagaric Jaungoicuaren promes andijeetan; sinistu daigula duda bagaric Jaungoicuona, misericordijosua, zucena, ta altuba dana. (I-36-24).

(14) Esanda geratu da (...) celan aguinduten deutscun cristinu guztioi, Jaungoicua ameetako (...). Ta baita pedia, ta esperantzia biar diriana bere, mandamentu onen aginduba eguiteco (I-39-4).

(15) Cristinau guztiac daquijee, lelengo mandamentubac aguinduten davena, Jaungoicua ametako, beste gauza guztiac baino gueijago. Guztiac daquijee, Jaungoicua amau bagaric Cerubic ez daguana. (I-39-13).

(16) Eztago inor bere, (...), gauza bat, guztiz ona dana, jaquin ezquiero, ameetan ez davenic (I-40-19).

(17) Andija da Jaungoicua, ta chito guztiz ondo esatia mereciduten davena, dino David Erreguiac. (I-54-9).

(18) Gauza jaquina da, adisquidiac, ona izateco, pirmiac izan biar davena. (I-60-1).

(19) ¿Acordeetan eteda alaco vijotz gorrototsuba, berac bere Jaungoicuaren gorrotua irabatzi davena? (...) (I-99-23).

(20) Duda bagarik naico davena, cristinauba bida. (I-99-27).

(21) (...) gauza aguirria da, arerijuarentzat vorondate charra daucana, ta ameetan ez davena. (I-101-11).

(22) Ezin ucatu guinai (...) arerijuari gach eguna parcatu biar deutsaguna. (I-101-25).

(23) Ezin ucatu guinai, neure entzula onac, chito oitura galdua, ta zabala daguana cristinaubeen artian juramentubac eguiteco. (I-114-29).

(24) San Agustinec autor eban bere buruba gaiti, egunian egunian juramentu eguiteco oitura galdua eucana. (I-116-30).

(25) Bainha jaquin nevianian gauza chaarra zana, bildurtu nintzan... (I-117-5).

(26) Cristinaubac, gauza jaquina da, juramentu gaistuac, blasphemijaac, maldecinoiac, ta bidaiac alcarri dautseena. (I-149-25).

(27) Baquit, ugazaba ascoc esango daveena: (...), areequin baqueric ecin leguijala; biarra egun gura ez daveela; edo echeti urteeten dabeela; Jaungoicozco otseguin bat topau ecin leguijala... (I-226-24).

- (28) Besteengaltian diriana ezautu ezquero, (I-235-25).
- (29) Ez dau ill biar; nor bera illterra datorrena, zucen jaquin arren. (I-239-21).
- (30) Sinistu evan, Ceruba, ta luurra diadarca eucazana bere contra (I-242-2).
- (31) Gueijagoco bagaric guizona ill biar ez dana, guziac daquijee (I-245-12).
- (32) Esaten da bada: (...) 2. Guero euquico dirugun, baina oraindino ez daucaguzan ondasunac gaitic; edo, gueuri jatorczana, daquigun, ta guero euquiteco ustia, daucagun ondasunac gaiti, ez dala inor ill biar: 3. Ez dala ill biar, noberari jagocan aziendia, edo inoc aguindutaco artutecua, beretutia, engainuz, ta erruz eragozten deutsana, edo atzeratuten deutsana. (I-248-7).
- (33) ¡Ez daquit eguija esateco, celan gau baten bere sosiguz lo egui leguijan guizon batec, edo emacume batec, bere erruz, ta bere guraz limbo ilunian betico sartuta arima bat daucana, daquijal! (I-250-22).
- (34) Baquit Ceruco justuben cer egui nausija euren gorputzari gurarijac ucatia, ta padecidu eraguitia izan dana (I-262-15).
- (35) Nos ezaututen dau orditu dana (I-268-24).
- (36) Orditutia gauza ezaina, itsusija ta lotsagarrija dana, umetaraguinoco guziac bere ezaututen davee, (I-268-29).
- (37) gauza jaquina da, dinot, tercio onetara arda laarrijac ecarri davena, orditu dana (I-273-6).
- (38) Onan verba eguiten deutsee (...) Espiritu Santubac guraso guztiai (...): Umetati seme alabai esan oneco, ta arrazoe oneco azieria emon biar jacuena, chiquitati ezi, ta domau biar diriana, tema gaistuaquin urtetan ichi biar ezjacuena, ta gauza deungaric parcatu biar ezjacuena; (I-Sermoia-3-15).
- (39) Au gaiti, ceubec daquizu, neure entzula onac, era guichi galdu ditudana neure eracutsjeetan, gurasuai egui biar andi, edo nausi au gogoratu bagaric. (I-Sermoia-4-16).
- (40) Baquizu zucen, ceure semiac, edo alaviac pecatu mortala eguindavena. Jaungoicuaren aguindu Santu bat gauza andijan ausi davena. Baquizu, pecatu mortal bat, edo asco eguinditubanetic, gaineco ill bijan, lauban, edo gueijaguan compensau ezdana. Baquizu, diabruagaz lo eguiten davena. (I-Sermoia-22-9).
- (41) Bainaz ezin ucatu negui, aparteco poza artu davena nire vijotzac, Eleisa guzonac ene neque pusquia ontzat emon daveeneian (II-I-9).
- (42) Ezaututen eveen Eracusla Cerutar areec; luxurijac sustrai andijac daucazana. Arima asco illten ditubana. Iraasten erraza dana. Osatuten gacha dana. Santubai eurari cer egui asco emon deutseena. Andijac, eta senduac bere goitu ditubana. Cristandadia desondreetan davena. Cerubari burla eguiten deutsana. Guizonac ganaduteten ditubana: Munduba ezaindutzen davena. Jaungoicuac chito gorroto deutsana. Ta pena bildur garrijeguin castigau davena. Escuteten eveen Jaungoicuzco guizon areec, engaňu asco, ta uts eguite andijac erein ditubala diabruac guizonen vijotzetan seigarren aguinduko doctrina santubaren contra. Luxurijaren sare gaistuetan sartuta, itsututa, daucazala etsaijac arima asco, pecatu loijagaz beretueta (II-11-17).
- (43) ¿Ez dira acordauco cristinau loijac, euren gorputzac diriana, edo izan biar davena Espiritu Santubaren templu, edo egon lecu vitzjiac? (II-27-23).
- (44) Baqui, cristinauben pecatubeetati lotsarizcuen, ta gorrotogarriena dana. Baqui, cerubac gogox castigueetan davena. Baqui, satanasac pecatu agaz gueijen engaineetan davena. Baqui, cristinaubac pecatu lotsarizcuan jausteco, ocasinoe asco daguezana. (II-30-27).
- (45) Pediac eracusten deutscu; diabruac gueure arerrijac diriana; guri pecatuban illteco, aleguin guzia cansau bagaric eguiten deveena; guizon, eta emacume guziac impenruban euraquin beti erreetan euqui gura lituqueena. (II-38-2).

(46) Lotsarizco pecatuba laster iraasten dana; nequez erremedijetan dana; edo, inos bere ascoc erremedijan ezoidavena; ta bere ondoric beste pecatu asco, Jaungoicua ucateraguinoco, eraguien oiditubana, guztiac autor daveen eguija da (II-38-21).

(47) Baquijee, eurai jazo jacuenagaz, lotsarizco pecatubac arimari gueijen itsututen ditubana, engainenetan ditubana, Jaungoicuaren gaucetati ustu, ta liortutene ditubana, ta condetenan ditubana (II-42-3).

(48) Ezin ucatu guinai (...) luxurijaren castiguraco berrogui eguneco, ta gaveco eurijagaz mundu guztia urez estaldzu zana. Ezda, zortzi persona Noeren uchaan vitziric gueratuta, beste munduko guizon, ta emacume guztiac orduban ito ziriana bere (II-44-18).

(49) Emacume galdubac guzur andija jaso, cleituba galdu ta preso sartuco evana, beequivjan bere (II-59-23).

(50) Beequivjen, erre bagaric, suba colcuan inoc eruaten ez davena. Beequivjen, pecatu loija laster iraasten dana; ta, nequez quenduten dana. Beequivjen, San Agustinegaz, cerubaren urrera igon eveen andijac, ta santubac bere, luxurijac itzuli, ta goitu ditubana. Beeguijen San Isidorogaz, beste pecatu guztiac, baino arima gueijago luxuriac impernura eruaten davena. Emacumiak guizon ascori pedia, ta arima galdu eraguien deutseena. Beeguijen (...) alcar illteco verenua daugueena. Endamas emacume urtengura, ibiltari, apaindubac, ceingaiti dinuan San Anbrosioc: *Impernuco demonino guztiendechia dala* (II-63- 24).

(51) Dan moduban dala, ezin ucatu guinai, aguindu onetan chito ez jaguin andija daguana cristinauben artian (...) Baita gauza jaquina da, onetarico ezjaquinac, gueijenac diriala Jaungoicuaren vegui arguijetan pecatuzcuac. (II-67-9).

(52) Persona libriac alcarregaz araguizco gauza lojac eguitia, pecatu mortala dana, pede-co erabaquia da (II-69-11).

(53) Oneec bere compensau biar dira, ala ezcondubagaz, edo senidiagaz, edo senide escondubagaz eguiun ziriana (II-70-28).

(54) Seniden arteco araguizco pecatubac autortu biar dira bada compesinoian. Ez bacarric pecatu eguiun dana; ez bada baita senidiagaz, ta ce gradutacuagaz eguiun dan bere (II-71-18).

(55) Jaungoicuac onetarico pecatubac gaiti, erri zori gaistoco areetan eguiun zituban castigubac, ta ichaso ill, arre eguinda, erri areec gueratu ziriana, esanda bostgarren icasiquizunian (II-72-30).

(56) Bada, (...) eguija bada seigarren aguindu santubaren contra berez pecatu venialac edo gauza guichiric ez daguana edo ceinec dacuts, ce arriscu andijan daguan gueure arimaco gracijsa pensamentuzco pecatubetan bertan. (II-83-25).

(57) Guztioc daquiguna, da, edo jaquin biar doguna, lapurretia Jaungoicuac eragotzita daguana. (II-96-18).

(58) Ceinegaz eracutsi evan Jesu-Cristoc, lapurretia pecatu andija, edo illgarrija dana (II-99-18).

(59) Bada (...) lapurrac badira, vizi dira triste errucarrijac bildurrez, ta icaraz. Euren lapurretac gentiac aotan darabilzana, daquijela. (II-99-30).

(60) Baquizu, zure auzuac aza bat, nai porru bat ostu deutezelaco, eguingo ditubana, luurrari icara eragineko bidauac, ta maldecinoiac. (II-104-11).

(61) (...) merque salduco daveena, daquijelaco. (II-118-29).

(62) Ola jaun bic, edo iruc, edo gueijagoc baquijee, euren Oleetara inguruco iquetzic gueijenac, edo guztiac eruan biar ditubeena, (II-119-4).

(63) Baquijee, daucanac, saldu biar davena, ta eurac baino, noc erosí ez daguana. (II-119-13)

(64) Baquizu, auzuac diruba biar davena popuertza. (II-124-32).

(65) Ta, saldu biar davena icusita, esqueintzen deutsazuz ogueta amalau ducat (II-125-3).

(66) Baquizu dirua biar davena, ta nai gora, nai merque, saldu biar davena (II-125-16).

(67) Beste ainbeste milla tratutan. Erremedijo bagaric saldu edo erosи biar davena ezautua... (II-125-26).

(68) Plazura bere emoten deutsa, ain pagazaille ciurra ez dana jaquin arren (II-131-17).

(69) Emacume ordijac ez dau esango, echian ostuta edaaten davena. Semiac, edo alaviac ez dau esango, urtia ecer icasi bagaric irago jacona, ta gurasuai alperric castatu eragin deutseena. Ta ezda, echian ostutaco jan gauciagaz, adisquide ez onari merijandia sarri emon eutsana bere. Bada jaquin (...) aparteco pecatuba dala (...) echecho ondasunac castetia (II-143-29).

(70) Dorrina labur bateraco, au campo andija dana, bacusz, cristinaubac. (II-149-4).

(71) (...) pecatuba parcatuten ez dana, ta lapurra ta calte guina condenatuco diriana, Eleisa guztiaren sinistutia, ta eracutsija da, (II-149-13).

(72) *Lapurreta ontzat emoten daveenac.* Badaquizu zuc, inoren calteco gauza bat eguitera duazana edo, lapurretarra duazana beste batzuc (II-151-23).

(73) Ta erosten dozu ostuba dana, daquizula. (II-152-1).

(74) Otseguinac ugazabari contu emon biar deutsa, lapurretan eguiten deutseena, jaquin ezquiero. (II-153-4).

(75) Bacusz, eguitade doiloor bat ceure lagun bati beste batec eguin deutsana. Ta esaten deutsazu: *Ezertaco eza dala, coitau epela dala, alaco prestu ezari alan isten badeutsa.* (II-154-5).

(76) Mosec ez eutsan inos esan Paraoni: Egitorri gentia aterata, atcera biurtuko ez zanic, bere uste, ta lan guztia ataraco izan arren. Iru eguneco vidian juan biar evala bere gente guztigaz, Jaungoicuari mendijan esqueinija eguitera, esaten eutsan Paraoni. Ta atcera biurtuko ez zana, ixilic euqui. (II-180-8).

(77) Pama onac, eta cleitu onac asco balijo daveena, edo ceinec daqui bere burubagaz. (II-183-26).

(78) Lagunaren cleitubaren contraco guzurra norberac asmauta, esaten davenian. Esaten dozu inor gaiti (guzurra dana daquizula, edo ceuc, edo bestiac asmautacua) (II-183-32).

(79) Baquizu, lagun batec gauza deunga bat eguin davena, edo eguitera doiana (II-187-2).

(80) Baquizu, deunga batec inocente, edo ez jaquin bat engainenetan davena. Ta, ariman, edo vizitzan caltiac ecarteco, sailetan sartuten davena, edo sartu gura leuquiana. (II-187-11).

(81) ¿Ta cer eguiten dau miin gaisqui esaliac (...) batian: *au entzun davena;* bestian: *ane dinuela;* bestian: *alan eizala;* bestian: *zanac emon eutsala;* ta bestian: *alan dala esanda,* beti inoren faltac, guzurrac, edo eguijac esaten, (II-190-4).

(82) Baquigu escritura sagraduti, Jaungoicuac gorrotu deutsana inoren contraco gaisqui esatiari. (II-192-22).

(83) Iracurten da: Gaisqui esala bat impernuti aguertu jacola bere lagun bati; ta eracutsi eutsala ce sarija eucan impernuban bere gaisqui esatiac gaiti. Miina eucan sututa, aotiz lurreraguino luzatutene evala. Ta condenaubac berac zulotu, ta zatitutene evala bere miina. Baita atcera sartu bere bere lecura ta esan eutsala azquenian: *miin onegaz ascoren ondria galdu neban.* Ta pena *au irabatzi neban betico.* Baita iracurten da: miin gaisqui esalac arrac jan ditubeena, ta usteldu diriana bere. Baita: Nesca gaisqui esalaac, ta guzur ezaarlac, seinic eguiñezinda, luzaro egonda eguiñ bagaguic errebebentau daveena bere. Panucio, Monge inocentiarri erruba ezarri eutsan nesquia, eguna ascotan seina eguiñezinda, eguna zana, baquigu. (II-193-7).

(84) Baquizu persona bat beste bategaz asarre dana. Ta, ceuc persona á aitatu ezquiero, á gaiti deungaro esango davena. (II-195-6).

(85) (...) icusten badiatu gaisqui esaliac (...) gainecuac ixildu diriala, mututu diriala, tristetu diriala, ta arpeguijac illundu ditubeela, berecautu eutsa dau, areec inoren gachic entzun gura ez daveena. (II-201-12).

(86) Au onan jazotene dana, guztioc daquigu (II-202-28).

- (87) Ta meztituten ezautu eveen, emacumia zana. Errubagia zana. Santia zana. (II-232-30).
- (88) ¿Esango dogu menturaz? *Jauna nic ondo daquit, á deunguia dana* (II-233-20).
- (89) Bacusz (..) asco balijo deutsuna eracutsi onetaco dotriñiac (II-271-11).
- (90) *Banequijan*, dino Salomonec, *Jaungoicuac ceruti lagundu bagaric, ona izan ezin neintequiana* (II-280-3).
- (91) Ya gauza agirija da (...) Jaungoicuari erregutu biar deutsaguna edo oracinoia eguiñ biar doguna (II-280-25).
- (92) Jesu-Cristo gure jaunac berac ichi euscuzana Sacramentu santubac, inoc bere ucatu ezin legui, (III-7-19).
- (93) Baita Eleisa Ama Santiac berac eracusten deuscu (...) Sacramentubac zazpi diriana bere (III-8-21).
- (94) Gauza bi eracusten deuscz emen Apostolu Santubac. Bata da, batiatutene dana, guztiz garbiña, ta Santutuba gueratutene dana. Ta bestia da, Bautismo Santuba uragaz eguiten dana. (III-38-9).
- (95) Gauza jaquina da, alaco guraari sutsubari indarra artutene isten jaconian, odolac sututene diriana, zanac tiratutene diriana, ta gorputz guztiari neque andija emoten jacona (II-53-27).
- (96) ¿Ez daquizu (...) *Eleisiaren usadijua dana, batiatubai Obispo Jaunac escubac imintia, ta Espíritu Santubari dei eguitia?* (III-91-22).
- (97) Bada, gauza jaquina da, Apostolubac bildurtijac, ta arpegui guichicuac ziriana... (III-94-7).
- (98) Ezaututene dau Jaungoicua dana, Aita on guztiac baino obia; (III-122-7).
- (99) Baqui, Jaungoico zucenac parcatutene ditubana (...) pecatubac (II-122-25).
- (100) (...) baqui, parcatutene jacozena, ta inos bere lotsatuco ez daveena. (...) baqui, parcatutene ez jacozena, ta beti lotsatuco daveena, ta erreco daveena impenruban. (III-142-18).
- (101) Baita pecatu eguiñ evana jaquin da, compesau ete evan, edo ez ete evan bere. (...) ¿Baquizu pecatu eguiñ cendubana; baina dudia daucazu compesau cenduban, edo ez? (III-143-30).
- (102) Baina gogoratu jatzuzanian compesau biar dituzu leen aaztutaco pecatubac. Baita aaztubac ciriana bere (III-144-15).
- (103) Ezin ucatu guinai, uts eguite asco daucaguzana (III-172-8).
- (104) Lasterrago dator gueure errazoiaaren erara: Jaungoico onac, ta Santubac pecaturic gura ez davena; Jaungoico Espiritu utsac Virgina eder baten Sabelian sortuta, gorputza ta arimia beragana hartu ditubana baino (III-195-31).
- (105) Guichiago costata sinistuten dogu: Pecatarri garbatubari Jaungoicuac pecatuba parcatuco deutsana: Jaungoico Guzta- daiquiana, Cerubac eta luurrac cabidu ezin daveena, Ostija chiqui baten osoric, eta viziric barrututa daguana baino (III-196-6).
- (106) Baina, alan dana, baquigu (III-201-2).
- (107) Ordu artian, sinistu biar dogu, chiquijac, ta guichiracuac gariana. Ta guc achitu aldaiguzan baino, altubaguac, ta escutubagocuac diriana (III-201-22).
- (108) Ezin ucatu guinai bada (...) gauza (...) andijagua dana, Jesus Jaungoico, ta Guizon Eguijazcuari gueure echian ostatuba emotia (III-207-16).
- (109) Baina pecatu chicarretan, ta arinetan jausi ez danic, ez daquigu, Jesus ona, pecaturic ezin euquiana, ta Ama Virgina maitia, pecaturic ez chiquiric ta ez andiric eguiñ ez evana, baino besteric. (III-224-21).
- (110) Oneec aituten emoten deuscubee; Jesusen gorputz illa Curutxian egon zana; bere albo santuti odola, ta ura emon evana: Ta, Cerutati eratsita, gorputz Santuba sepulturan imini eveena (III-245-6).

(111) Onegaz gogoratuten dogu (...) Jesus Maitiac (...) gueure pecatubac quendu citubana; ta vitztuta, Aita Cerucuagana igonda, bere erijotzaco zauri nausijac gorputzian aguirrijan daucazala, Jaungoicuagaz pecatarijaren arteco baquia jadisten davena (III-245-33).

(112) ¿Nos uste dogu, ecer ez gariana? ¿Ta ecertaraco ez gariana? (III-262-32).

(113) Ordubar ezaututen dogu arguilo, gueurez ezer ezac gariala. Ta Jaungoicua bagaric ezer ezin guinajana (III-263-3).

(114) Eleisiac eracusten deuscu, Extrema uncinoia Jesucristo gueure jaunac ichitaco Sacramentuba dana; ta, beste Sacramentubac leguez, berari jagocan gracia arimiari emoten deutsana (III-271-33).

(115) Ezin ucatu guinai, erijotzaco ordubar cristinaubac izaten ditubala tentacinoeric andijenac, Jaungoicua galdueteko (III-276-31).

(116) Ordubar ecarten deutsaz diabruac gogora viziro cristinaubari (...) Baita ona izateco eraac sarri euqui ditubana ta alperric galdu ditubana bere. (III-276-34).

(117) Orregaiti ez deutsut esango guztiac, jaquitia ondo dana, baino gueijago (III-282-23).

(118) Sacerdotetzia, edo Ordia Sacramentuba dana, ta Jesucristo gueure Jaunac ichi euscuna, Trentoco Batzaaar santubac eracusten deuscu, (III-283-1).

(119) Baquizu, ascori jagocazan Icasiquizunac diriana oneec (III-312-25).

(120) Casic ezagun da, Jaungoicuac atara dei eguiten ez deutsana (III-316-18).

(121) Guztioc daquizu (...) onaco bardin bagaco ezcontzac arriscu andicuac diriana (III-335-28).

(122) (...), beti alcarregaz vizico diriana jaquitia! (III-343-13).

(123) Bainazin ucatu guinai, seme alava onac diriana ezcontciaren prutu estimauba, Jaungoicuac emoten ditubanian. (III-346-29).

(124) Ezin ucatu guinai, senar emazte asco vici diriana alcarren gorrotuan (III-347-26).

(125) ¿Nos aaztuco jaco, bada, senarrari goguaz contrara, juez aurreti, ta zamaijaquin emaztiac ezcondutera ecarri ebana? (III-360-32).

(126) Nos iruntsico ete dau guztiz, bere temiagaz urten ez evan penia? ¿Nai ez euquian emaztia artu eraguin eustseena? (III-361-3).

(127) Bainazin cristinau errijetan ez dago ezcongueiric, (...) oin chaarra, asiera chaarra, ta Jaungoicuaren gorrotua beragaz daroiana, ez daquizanic (III-361-26).

(128) Seme alabac ezcontza achaquijagaz gaisqui vici diriana, daquijela, lo eguztia oidevee ardura bagaric (III-363-32).

(129) Duda bagaric onei gogora ecarrico deutzet etsaijac euren estutasunetan: *Ezcondu ez balira, obeto Jaungoicua serbiduco eveena; ezcontzacac dichosuac, ta zorijonecuac diriana; suerte chaarra jazo jacuena; nai izanda bere jaungoicua serbidu ezin leguijena; eurac baino chaartuago inor vici ez dana...* (III- 369-6).

(130) Banequian, ain trumoe andijac eurija ecarrico evana (III-375-6).

3. Corpusaren azterketa: Taulak

1.- Gald: galdegaitasuna.

Mintz: mintzagaitasuna.

P-ez: perpaus agintari negatiboa.

P-?: perpaus agintari galdera edo subordinatua. Kasu bakoitzean zein den argituko da.

Fakt.: faktibotasuna.

Menp.:perpaus konpletiboa baiezko edo ezezkao izatea.

Aditz nag. aditz nagusia

2.- +: segurutzat ematen da.

+?: nahiko probablea.

??: ez dago argi baina kontestu orokorrari begira izan liteke.

0: ez dugu hipotesia egiterik.

-: nahiko argi ezetz.

BAI: perpaus konpletiboa baiezkoa.

EZ: perpaus konpletiboa ezezkao.

BAI EZ: konpletibo bat baino gehiago eta diferenteak.

3.- bal: baldintza.

erl: erlatiboa.

MUL: multzoak, adibidez, sintagma atributoak eta aditz-perifrasiak.

NOM: nominalizazioa.

KON: konpletiboa.

KONT: kontzesiboa.

zeh: zehar galdera.

ger: gerundiala.

kaus: kausala.

Hasierako zenbakia adibide-multzoari dagokio, ez perpausari. Hortaz, *-na dun konpletiboa edo aditz agintari desberdinak agertzen direnean, kodigo bat baino gehiago sartu dugu. Era berean, denak kuantifikatu ditugu.*

P.Zk.	Gald.	Mintz.	P-ez	P-?	Fakt.	Menp	Aditz Nag.
1	—	+	—	bal	+	bai	banequi
2	—	+	—	bal erl	0	bai ez	esango ezbaleutscu autor doguna
3	—	?	—	—	+	bai	eracutsi deutscu
4	0	?	—	MUL	+	bai	gauza jaquina da
5	0	0	—	bal	+	bai	jaquin ezquero
6	0	0	—	MUL	+	bai	(pedeco) eguija da
7	—	0	—	—	+	bai	Ezautu evan
8	—	?	—	+	+	bai ez	Ezautu eeven
9	—	?	—	—	+	bai ez	Ezaututen dogu
10	—	?	—	—	+	bai	autortutten dau
11	—	?	—	—	+	bai ez	sinistutten dau ezaututten dau
12	—	?	—	NOM	0	bai ez	esana da
13	—	+	—	KON	+	bai	sinistu daigula
14	—	+	—	—	0	bai	esanda gueratu da
15	—	+	—	—	+	bai ez	daquijee
16	0	0	—	bal	+	bai	jaquin ezquero
17	?	?	—	—	0	bai	dino

P.Zk.	Gald.	Mintz.	P-ez	P-?	Fakt.	Menp	Aditz Nag.
18	—	+	—	MUL	+	bai	gauza jaquina da
19	—	+	—	+	+	bai	acordeetan ete da
20	—	+	—	—	+	bai	duda bagaric
21	—	+	—	—	+	bai	gauza aguirija da
22	—	+	+	—	+	bai	ezin ucatu guinai
23	—	+	+	—	+	bai	ezin ucatu guinai
24	—	+	—	—	+	bai	autor evan
25	—	+	—	—	+	bai	jaquin nevanian
26	0	?	—	MUL	+	bai	gauza jaquina da
27	—	?	—	—	+	bai	baquit
28	0	0	—	bal	+	bai	ezautu ezquero
29	—	0	—	kont	+	bai	zucen jaquin arren
30	—	+?	—	—	+	bai	sinistu evan
31	—	+?	—	—	+	ez	daquijee
32	—	0	—	erl	+	bai	daquigun
33	—	?	—	ger	+	bai	daquijala
34	—	?	—	—	+	bai	baquit
35	—	+?	—	zeh	+	bai	ezaututen dan
36	—	+	—	—	+	bai	ezaututen dave
37	—	+?	—	MUL	+	bai	gauza jaquina da
38	—	+?	—	—	—	bai ez	berba eguin
39	—	0	—	—	+	bai	daquizu
40	—	+?	—	—	+	bai ez	baquizu
41	—	—	+	—	+	bai	ezin ucatu negui
42	—	+	—	—	+	bai	ezautu eveen
43	—	0	+	+	+	bai	acordauco dira
44	—	+	—	—	+	bai	baqui
45	—	+	—	—	+	bai	eracusten deutscu
46	—	+	—	MUL	+	bai	eguija da
47	—	?	—	—	+	bai	baquijee
48	—	+	+	—	+	bai	ezin ucatu guinai
49	—	—	—	—	+	bai	beequijan
50	—	+	—	—	+	bai	beequijen
51	—	+	+	—	+	bai	ezin ucatu guinai
52	—	+	—	MUL	+	bai	pedeco erabaquia da
53	—	+	—	—	+	bai	confesau biar dira
54	—	+	—	—	+	bai	autortu biar dira
55	—	+	—	—	0	bai	esan da
56	0	?	—	bal	+	ez	eguija bada
57	—	+	—	—	+	bai	daquiguna edo jaquin biar
58	—	+	—	erl	+	bai	eracutsi evan
59	—	—	—	ger	+	bai	daquijela
60	—	—	—	—	+	bai	baquizu
61	—	+?	—	kaus	+	bai	daquijelaco

P.Zk.	Gald.	Mintz.	P-ez	P-?	Fakt.	Menp	Aditz Nag.
62	—	?	—	—	+	bai	baquijee
63	—	+?	—	—	+	bai ez	baquijee
64	—	+?	—	—	+	bai	baquizu
65	—	+	—	ger	+	bai	icusita
66	—	+	—	—	+	bai	baquizu
67	—	+	—	ger	+	bai	ezaututa
68	—	+	—	kont	+	bai	jaquin arren
69	—	+	+	—	0	bai	esango dau
70	—	—	—	—	+	bai	bacuszu
71	—	+	—	—	+	bai ez	sinistutia ta eracutsija da
72	—	0	—	—	+	bai	baquizu
73	—	?	—	ger	+	bai	daquizula
74	—	+	—	bal	+	bai	jaquin ezquiero
75	—	+?	—	—	+	bai	daquizula
76	—	+	—	MUL	+	ez	ixilic euqui
77	?	?	—	—	+	bai	daqui
78	—	+	—	ger	+	bai	daquizula
79	—	+?	—	—	+	bai	baquizu
80	»	+?	—	—	+	bai	baquizu
81	+	—	—	—	0	bai	(esan)
82	—	0	—	—	+	bai	baquizu
83	+?	0	—	—	0	bai	iracurten da
84	—	+	—	—	+	bai	baquizu
85	—	+?	—	—	+	bai	ezautuco dau
86	—	+?	—	—	+	bai	daquigu
87	—	?	»	—	+	bai	ezautu eveen
88	—	+?	—	—	+	bai	daquit
89	—	0	—	—	+	bai	bacuszu
90	—	+?	—	—	+	ez	banequijan
91	—	+	—	MUL	+	bai	gauza aguirija da
92	—	+	—	—	+	bai	ucatu ezin legui
93	—	+	—	—	+	bai	eracusten deutscu
94	—	+	—	—	+	bai	eracusten deutscuz
95	—	?	—	MUL	+	bai	gauza jaquina da
96	—	+?	+	+	+	bai	daquizu
97	0	?	—	MUL	+	bai	gauza jaquina da
98	0	?	—	—	+	bai	ezaututen dau
99	—	?	—	—	+	bai	baqui
100	—	+	—	—	+	bai ez	baqui
101	—	+?	—	+ ger	+	bai	jaquina baquizu
102	—	+	—	—	+	bai	compensau biar dituzu
103	—	?	+	—	+	bai	ezin ucatu guinai

P.Zk.	Gald.	Mintz.	P-ez	P-?	Fakt.	Menp	Aditz Nag.
104	—	+?	—	104	0	bai ez	lasterrago dator errazoira
105	—	+?	—	—	0	bai ez	sinistuten dogu
106	—	+	—	—	+	bai	baquizu
107	?	?	—	—	+	bai	sinistu biar dogu
108	—	?	+	—	+	bai	ezin ucatu guinai
109	—	?	—	—	+	ez	(badaquigu)
110	—	+	—	MUL	0	bai	aituten emoten deuscubee
111	0	?	—	—	+	bai	gogoratuten dogu
112	—	+	—	+	—	ez	uste dogu
113	—	+?	—	—	+	bai ez	ezin ucatu guinai (-la, -na)
114	—	+	—	—	+	bai	eracusten deuscu
115	—	—	—	—	+	bai	baquizu
116	—	?	—	—	+	bai	ecarten deutsaz
117	—	—	+	—	0	bai	esango deutsut
118	—	+	—	—	+	bai	eracusten deuscu
119	—	—	—	—	+	bai	baquizu
120	—	+	—	—	+	ez	ezagun da
121	—	+	—	—	+	bai	daquizu
122	—	+?	—	NOM	+	bai	jaquitia
123	—	+?	+	—	+	bai	ezin ucatu guinai
124	—	0	+	—	+	bai	ecin ucatu guinai
125	—	+	—	+	+	bai	aaztuco jaco
126	—	+	—	+	0	bai	iruntsico ete dau
127	—	?	+	erl	+	bai	daquizanic
128	—	+	—	ger	+	bai	daquijela
129	?	?	—	MUL	+	ez bai	gogora ecarrico deutsez
130	—	0	—	—	+	bai	banequijan

[+GALD] izan daitezkeen konpletiboak:

Oso seguru izan daitezkeenak: 81 *esan*.

Nahiko probableak: 83 *iracurten da*.

Behar bada: 17 *dino*, 77 *jakin*, 107 *sinistu*, 129 *gogora ekarri*.

Ez dugu asmatzerik: 10 kasu guztira.

Nahiko argi dago galdegaia ez dena: 114 kasu guztira.

Badirudi *-na* morfema konpletiboa galdegaia ez izanik agertzeko joera nabarmena dagoela, nahiz eta zalantzazko zenbait kasu egon (gutxi), baita ziur aski galdegaia den kasuren bat ere.

[+MINTZ] diren konpletiboak:

Oso seguru: 53.

Nahiko segurua: 23.

Ez dago argi baina kontestu edo tematika orokorrari ondo dagokio: 30.

Ez dago asmatzerik: 15.

Nahiko argi “ez”: 9.

Portzentzaia nahiko handi batean (53 aldiz) mintzagaia da konpletiboa edo behintzat espreski aipaturik dago bere enuntziatuak adierazten duen proposizioa; beste portzentzaia nabarmen batean (23 bider) nahiko probabletzat jotzen dugu tematizaturik izatea; bion artean 76 perpaus dira. Oro har testuinguruarekin lotzen direnak baina lotura zuzen eta argirik sumatzen ez dugularik, 20 dira. 15 dira asmagaitzak guretzat eta 9 kasutan nekez onartuko genuke konpletibioaren tematizazioa; ondorioz: *-na* daraman konpletiboa tematizaturik egoteko joera nabarmena dago, baina ez dirudi ezinbestekoa denik.

P nagusia eta menpekoa, biak izan daitezke baiezkoak zein ezezkoak. P nagusia negatiboa izateak ez du *-na* agertzea galerazten, baldin ukazioak ez badu konpletiboa adierazten duenaren egia-balioa ukitzen.¹⁶

Gauza bera esan dezakegu “galdera” tasunaz. Perpaus nagusia galdera izan daiteke, gehienetan, absolutoa izan gabe: ikus (8), (43), (19), (96), (101), (125) eta (126).

Ez dirudi konpletiboaaren perpaus nagusia subordinatua izateak *-na* morfemaren agerpena galerazten duenik.

Perpaus agintaria baldintzazkoa izateak (faktibotasunari begira honek ekar lezakeen mugaz ohar gaitezen) ez da oztopoa *-na* agertzeko.

-na morfema dugularik, menpeko perpaus honetatik osagaiak atera daitezke, gehiagotan honelakorik gertatzen ez bada ere: ikus (4), (6), (30), (39), (41), (43), (51), (60), (64), (72), (82), (92), (96), (98), (99), (100), (103), (108), (119), (124).

[+FAKTIBOA]

-na konpletiboa 116 bider azaltzen da faktibotzat har daitezkeen egiturek (sintagmak, aditz perifrasiak, aditzak) agindurik, hots, kasu gehienetan; 13 bider aditza “neutro”-tzat jo genezake. Behin, dugun aditz agintaria ezfaktibotzat eman genezake (*uste izan*). Hona hemen zerrenda:

- a. *jakin* eta perifrasiak: *jakin*: 53, *gauza jakina izan*: 6, *jakin behar izan*: 1.
Guztira: 60.
- b. *ezautu* eta perifrasiak: *ezautu*: 10, *ezagun izan*: 1.
Guztira: 11.
- c. *sinistu* eta perifrasiak: *sinistu*: 4, *sinistu behar*: 1.
Guztira: 5.
- d. *gogoratu* eta perifrasiak: *gogoratu*: 1, *gogora ecarri*: 1.
Guztira: 2.
- e. Beste aditz eta perifrasi batzuk: *egia izan*: 3, *ezin ukatu*: 11, *autortu*: 3, *compesau*:

(16) Ikus, dena den, (76) adibidea, bertan autoreak *-nik* eta *-na* testuinguru berean erabiltzen ditu eta, *-nik* mugagabetasuna adierazteko termino markatua baina aukerakoa bailitzan.

2, *acordatu*: 2, *ikusi*: 4, *ixilic euki*: 1, *erakutsi*: 8, *aguirija izan*: 2 *duda bagarik*: 1, *pedeco eracutsja izan*: 1, *aaztu*: 1.
Guztira: 39.

NEUTROAK

- a. *esan* eta perifrasiaiak: *esan*: 5, *esanda geratu*: 1, *esana izan*: 1, *esanda*: 1.
Guztira: 8.
- b. Beste aditz eta perifrasia batzuk: *berba eguin*: 1, *iracurri*: 1, *irauntsi*: 1, *errazoira etorri*: 1, *aituten emon*: 1.
Guztira: 5.

EZFAKTIBOAK

uste izan: 1.

Beraz, 117 kasutan agintzen duen aditza edo perifrasia faktibotzat jotzen dugu; 13 kasutan neutrotzat eta behin ezfaktibotzat. Badirudi, bada, faktibotasunaren faktorea guztiz eraginkorra dela eta *-na* agertzeko, nahiz eta ezinbestekoa denentz baieztagatzerik ez dugun. Jakina, horrek ez du esan nahi faktibotasunaz positiboki markaturik dugun guztieta *-na* ezinbestean agertuko denik. Faktiboen artean, nagusigo nabarmena du *jakin* aditzak edo berarekin egindako perifrasiek, 60 bider, hots, ia erdia.

4.- Ondorioak

Informazio osoa eskuan dugularik, badirudi ezen gutxienezko ondorio batzuetara heltzeko tenorean gaudela. Gainbegirada batez, orain arte esan diren baldintza eta faktoreak, *-nal/-la* erabileraren gainean alegia, beraien erlatibotasunean eta zenbait matizaziorekin konfirma ditzakegula ematen du:

1. *-nadun* konpletiboak ez da normalean galdegaitasunez markaturik agertzen, baina ez dirudi ezinezkoa denik. Ez dirudi perpusean duen kokapena ez iraunkorra ez pertinentea denik.

2. Perpaus nagusiak nahiz subordinatuak baiezkoak edo ezezkoak izan daitezke.

3. Perpaus nagusia galdera izan daiteke.

4. *-nadun* konpletiboaren proposizioa ez da egiaztasunaren aldetik kuestinogarria izaten, fedeko sistemak direla, gauza jakinak direla, *de factokoak* direla, begi bistakotzat jotzen direla. Honen poderioz, adierazten dutena *de factozat* ematen duten aditzek agindurik sortzen dira gehienetan, baina ez beti. Aditza diskurtsoaren norabidearen arauera suertatzen da aukeraturik eta inolako aurresuposiziorik egiten ez dutenak ere aukeraturik gertatzen dira, baita, kasu bitxiren batean agintzen duen konpletiboaren proposizioa espreski zalantzagarritzat ematen duen aditzen bat ere. Geure kasurako, *uste izan* azaldu zaigu, baina ezin genezake, besterik gabe, halako aditz batek honelako esangura duenik esan; aztertu behar genuke kontestu zehatz batean *uste izan* horrek duen semantema,¹⁷ zeren gerta baitaiteke normalea *sinisturi*

(17) Oraingoan semantika estrukturala dugu iturri. Ikus Greimas, A.J., 1971, *Semántica estructural*, Gredos, Madrid (semantemaren gainean 37. orria bereziki).

atxekitzent zaion semaren bat egotea. Izan ere, halaxe dirudi oraingo honetan; proposizioa nabarmenki topifikaturik agertzen da eta “uste” behar dena, fedez sinistu eta begi bistakoa den zerbait da, “*ezer ez gariana*” alegia. Hortaz, testu-inguruak planteatzen dituen arazo semantikoak aztertu behar dira hainbat kasutan *-na/-la* oposizioaren giltzarria antzemateko.

5. Uste dugu ezen Patxi Altunak diona, *-na* konpletiboa azaltzeko beraren edukiak topifikaturik egoten direla eta, beraz, mintzagaitasunaz markaturik izaten delako *susmoa* justifikaturik dagoela —susmoa bakarrik— baina ezin da afirmazio radikalik onartu. Izan ere, ikusi dugunez, portzentzaia altu batean nabarmenki topifikaturik daude, lerro batzu lehenago aipamen berbera eta sarritan hitz berekin egin duelako autoreak; beste protzentaia nabari batean honen argi egon ez arren, espreski ez baita aipatu, badirudi esplikazio osoaren kontestuan tematizaturik egon daitekeela. Hala ere, asko dira ziurtasunez muga ezin daitezkeen kasuak eta inolaz ere mugatu ezin ditugunak.

Baina 9 kasutan argi dago mintzagaitasuna ezin daitekeena haintzakotzat eman. Halatan, Patxi Altunak Fray Bartolomeren corpus mugatu batez agertzen dituen zalantzak eta susmoak geuk corpus osora hedatu ez ezik, zerbait gehiago ere argi dezakegulakoan gaude: mintzagaitasunaz markaturik egotea ez bide da *conditio sine qua non* perpaus konpletiboak *-na* morfoa jasotzea.¹⁸

6. Antza denez, *-la/-na* derrigorrez eta hertsiki bereiziz bete beharreko legerik ez du Fray Bartolomek, baina bai une orotan egiten duen aukeran eraginkorrap diren faktoreak.

Hipotesi mailan esan dezagun faktorerik erabakiorrena semantikoa izan daitekeela: proposizioak gauza jakintzat, *de factotzat*, fedez edo ebidentziaz, emateak erabaki dezake *-na* morfemaren aukera; nekez gertatzen da hau konpletiboa galdegaitasunez markatzen delarik, informazio berri bat hanpaturik agertzea dakarren neurrian; al-diz, normalena da, eta bete betean dagokio diskurtso-mota honi, proposizio topifikatuak, gauza jakinak eta nabariak direnean.

Ziur aski *de facto* hori edo faktibotasuna erlatibizatzen denean, *-na* agertzeko posibilitatea txikitzen da. Honela, zenbait aditz modalizatzaile eta aditz modal desagertzen direnean, *-na* desagertu ez baina, nabarmenki, gutxitu egiten da bere presentzia:

a. *behar* aditz modalarekin ez dira gutxi *-na* itxarongo genukeen lekuaren *-la* morfemaren azalpenak:

Baita sinistu biar dogu, munduban iragoten ditugun gach oneec, Jaungoicuaren escu Santubac bialdutenean deuscuzanac diriala (III- 262-5).

Gogoratu biar dau gaixuac, Jaungoicuac Ceruti bialdu deutsala, daucan gacha, penia, edo illgarrija; Jaungoicua dala Ceruco Aita biguna (III-266-8).

Sinistu biar dau cristinaubac onezaz gainera: Vizi era barrija artuteco demporan ez dala lo egongo impernuco etsaija (III-316- 23).

Sinistu biar dogu bada, cristinaubac, odolezco bautismuac parcatutenean ditubala

(18) Beste alderik ez dugu ahaztu behar topifikazioaren eremu zabala zein neurritan egon daitekeen diskurtso motaren menpean. Abade batzen sermoiak direnez gero, hau da, diskurtso estu, didaktiko bat, erretorikak mugaturiko erak eragin handikoak dira dudarik gabe eta, hortaz, ideiak adibide antzekoekin behin eta berriz erreparatzearen jokabidea present dago.

pecatu gaztiac urezco bautsimuac berac leguez (III-29-4).

Sinistu biar dogu bada, (...), pedezco gauzatzat, nora ececu a dala ura, bataiatuteco ura a dala bautismoaren gueija. Ur bagaric ezin leguijala Bautismoco Sacramenturic (III-38-16).

Sinistu biar dogu bataiatu bagaric daguana ezin compirmau leitequiala (III-86-22). Jaquin biar da compirmacioeco Sacramentuba ez jacola cristinaubari bein baino emoten (III-86-25).

Sinistu biar davee, contentuz vici dirian senar emaztiac, diabrubia ez daguala lo (III-363-20).

Ugazaba, edo Jaun dirian guztiac gogoratu biar davee: leleengo, ez daguala Jaungoicuaren aurrian ya erabaguiric, andija, edo chiquija dalaco, aberatsa, edo pobria dalaco, jasua, edo bajucua dalaco, jaquituna, edo ez jaquina dalaco. (I-224-19).

b. -KE morfema duten ahalezkoak agintariak diren zenbait kasutan ere, autoreak ez du -na aukeratu:

Alan sinistu daiquegu, Cristinaubac, zazpi Sacramentu Santuben ezaungarrijac, edo irudijac diriala,... (III-4-14).

Sinistu daiquezu zeuc ezcondu orduco beragaz eguin cenduzan pecatu loijen castiguba dala. (III-363-20).

c. Ikus *ei* hizki modalizatzailearen inguruau gertatzen den aukeren aldaketa:

Ta cer eguiten dau miin gaizqui esaliac? (...) Batian: au entzun dabena: bestian au eidinuela; bestian: alan eizala; bestian: zanac emon eutsala; ta bestian: alan dala esanda (II-190-4).

d. Dena den, egia eztabaideazinak izanik ere, -la aukera dezake:

Sinistu daigun bada, (...), Jaungoicuac emon deutsazala Elisa guizonac gueure arimen oneraco. Jaun goicuaren ordeciuac diriala luurraren gainian. (I-213-3).

Ezautu daigun bada cristinaubac, aguindu onen contuba artuco deutsula Jaungoicuac, besteena leguez. Jaungoicuaren beraren lecuban dagozala Eliza guiztiac, ... (I-220-3).

e. Batzutan, *esan* aditza agertzeak eragiten duela pentsa daiteke, nahiz eta, ikusi dugunez, -naren aldeko aukera inondik ere galerazi ez:

Oraindiño esan legui Jeremias propeta Santubagaz: pensamentu on baten paltiac daucala munduba galdua. (I-4-5).

Esan legui, Escritura Sagradubari, ta Eleiza Ama Santiaren espiritubari beguiratuz ezquiero, Eleisa guizoneen cereguinic andijeena dala, Cristinaubai dotrina eracustia. (I-6-17).

f. Bainan *ezautu* ere hortxe dago -ladun konpletiboa duela:

Ezaututen dau, doctrina onaren paltia dala munduko gach ascoren sustrai indartsuka, ta trabaju ascogaz, baino erremedijeetan ezdata. (I-7-1)

Patxi Altuna eta Jose Antonio Mujikak bezala, geuk ere aditz faktibo eta kuestio-nagaitzak diren proposizioak agintzen dituzten aditzekin -la morfema kausitu dugu sarritan; hurrengoa adibide batzu baino ez dira:

Ondo ezaututen davee espiritu condenaubac: 1. oidanez, lotsarizco pecatuba dala,

lasterren iracasten dana, ta nequezen erremedijeetan dana 2. Lotsarizco pecatu baten bein jausi ezquero, cristinauba, oidanez, beste pecatu asco bere jasusico dala 3. Ezaututen davee diabruac, pecatu lojac escubide gueijago emoten deutsela eurai, condenauben arimac, ta gorputzac inpernuban benetaco, beste pecatubac baino. (II-163-8)

Ecin ucatu guinai, neure entzula onac, guzurra dala errijetaco, ta lagun arteco sinistute ona galduen dabena, Sospecha gaistuac gueitutene ditubana... (II-173-8)
Ecin ucatu guinai, erijotzaco orduban cristinaubac izaten ditubala tentacioeric andijenac Jaungoicua galdueteco. (III-276- 31)

Jaungoicuari erregututa, ondo pensauta, ezcontzaco vizi eria onduen jaotzula aleginaz jaquin da, ezcondu zara ceure gogoco lagun on, maite bategaz? (III-342-29)
Bada, jaquin neure entzula onac, (...) aparteco pecatuba dala zazpigaren agindu Santubaren contra, esan dan moduban, echego ondasunac castetia. (II-144-2)
Baina icusten badabee (...) dotirinario ez daquijala, Jaungoicuaren ezauberaric ez daucala, Sacramentubac artutenez ditubala... (III-80-33).

Ez dugu uste hemen autoreak egin duen aukerak galdegai edo mintzagaitasuna-rekin zerikusirik duenik, baina, behintzat, zerbait argiro erakusten du: faktore semantikoek eragin arren, ez dutela idazlea ezinbestean *-na* erabiltzen behartzen, hau da, libre samar joka dezakeela.

Argi dago, beste aldetik, *esan* aditzarekin, adibidez, neutro bezala eman duguna, fedeko egia aztabaideezinak direnak ere adierazten direla:

Onec esan gura dau, ezcontzaco lotugarrija, edo buztarrija beticua dala (III-342-28)
Augaiti esaten deuscu San Pablo Apostolubac *Uragaz garbitu evala Jesucristoc Eleiza guztia* (III-37-25).

Esaten da: Ez dala, ecer eztzar, edo balijo gichicotzat euquita, ichi biar compirma-cinoia (III-91-18).

Hala eta guztiz ere, *esan/jakin* erabiltzeak aukera diferenteak eragin ditzakeela —lehen *jakin*, *ezagutu*, *erakutsi* e.a., erabiltzeak *-naren* aldeko aukera nabarmenki eragiten duela ikusi dugu— zalantzak ez dago, hurrengo adibidean nabarmena denez:

Orregaiti cristinau guztiac goguan euqui biar davee gauza onetan Eleisa Ama Santiaren eracutsija. Esaten da bada: 1. jazo oi danez, urrezco escudo bat gaiti ez dala ino ill biar: 2. Guero euquico ditugun, baina oraindino ez daucaguzan ondasunac gaitic; edo, gueuri jatorcuzana, daquigun, ta guero euquiteco ustia, daucagun ondasunac gaiti, ez dala inor ill biar: 3. Ez dala ill biar... (I-248-7).

Eta Patxi Altunak, *Eascal Errijetaco dantzaac liburuari dagokionez*, erakusten duen antzera, aditz faktiboek agindurik *-na* eta *-la* batera azaltzen diren perpausak ez dira gutxi oraingo honetan ere:

Ezaututen eveen Eracusla Cerutar areec luxurijac sustrai andijac daucazana. Ari-ma asco ilten ditubana. Iraasten erraza dana. Osatuten gacha dana. Santubai eurai cer eguiñ asco emon deutseena. Andijac eta senduac bere goitu ditubana. Cristandadia desondreetan dabena. Cerubari burla eguiten deutsana. Guizonac ganadutene ditubana: Munduba ezaindutene davena. jaungoicuac chito gorroto deutsana. Ta pena bildurgarrijequin castigau davena. Ezaututen eveen Jaungoicozco guizon

areec, engaño asco, ta uts eguite andijac erein ditubala diabruac guizonen vi-jotzeten seigarren aginduko doctrina Santubaren contra. Luxurijaren sare gaistuetan sartuta, itsututa daucazala etsaiac arima asco, pecatu loijagaz beretuta. (II-11-17)

Dan moduban dala, ezin ucatu guinai, agindu onetan chito ez jaquin andija daguana cristinauben artian. (...) Baita gauza jaquina da, onetarico ez jaquinac gueijenac diriala Jaungoicuaren vegui arguijetan pecatuzcuac. (II-67-9)

Emacume ordijac ez dau esango, echian ostuta edaten davena. Semiac, edo alaviac, ez dau esango, urtia ecer icasi bagaric igaro jacona, ta gurasuai alperric castau eraguin deutseena. Ta ezda, echian ostutaco jan gauziagaz adisquide ez onari merijandia sarri emon eutsana bere. Bada jaquin, neure entzula onac, (...) aparteco pecatuba dala zazpigaren aguidu santubaren contra, esan dan moduban, echecho ondasunac castetia. (II-143-28)

Bacuszu auzuac daucala Bildots on bat, ortu on bat, edo beste alaco gauza on bat. Ta esaten deutsazu bati: Ezertaco danac, axe ostu biar leusquiola. (...) Bacuszu eguitade doiloor bat ceure lagun bati beste batec eguin deutsana. (II-153-30).

Irakurten da: Gaisqui esala bat inpernuti aguertu jacola bere lagun bati; Ta eracutsi eutsala ce sarija eucan inpernuban bere gaisqui esatiac gaiti. (...) Baita irakurten da: miin gaisqui esalac arrac jan ditubeena, ta usteldu diriana bere. Baita: Nesca gaisqui esalaac ta guzur ezelrac, seinic eguin ezinda, luzaro egonda, eguin bagaric errebbentau daveena bere. (II-193-7)

Orduban ezaututen dogu arguilo, gueurez ezer ezac gariala. Ta Jaungoicua bagaric ecer ezin guinajana. (III-263-3).

Ezin ucatu guinai, erijotzaco orduban cristinaubac izaten ditubala tentacinoeric andijenac, Jaungoicua galduzeco. Orduban ecarten deutsaz diabruac gogora viziro cristinaubari bere vizico pecatu guztiak. Jaungoicuaren justicia asarria bere: Baita onizateco eraac sarri euqui ditubana, ta alperric galdu ditubana bere. (III-276-31).

Zer dela kausa bada alternantzai hauek? Ez dirudi testu-inguru eta eduki aldatxetarik dagoenik; aditz agintaria normalean bat bera da, eta hala ez denean faktiboen barrutitik ez da irteten. Bestelako arrazoia aurkitzen saiatuz gero, eta aurreko hipotesiak oinarrian ditugula, pentsa dezakegu autoreak bere askatasunean, ezinbestean egitura zehatz bati lotzen dion legerik ez baitu sumatzen, ez ote dituen aukera estilistiko diferenteak egiten? Hau da, testu literario batean oinarriturik ari garela, planteatu beharreko hipotesi bat. Azpi-atal honen hasieran eman dugun lehen adibidea argia da (II-11-17) idazleak *ezaututen eveen* esaten hasita, *-na* dun konpletibo kate luze bat zabaldu du, baina erdian dagoela, hasierako egitura errepikatzen du eta kateari hasiera ematen dio berriro, baina oraingoan *-la* da guztieta rako aukeratu duena. Are argiagoa, bada, III-263-3koa: gauza bi *ezaututen dogu argiro*, lehenengo konpletiboak *-la* du, bigarrenak, aldiz, *-na*, konplementatziale biok perpaus subordinatuaren azken tokian agertzen direlarik. Hemen, antza, aukera estilistiko baten aurrean gaude. Eta ez dugu ikusten gainerako antzeko kasuetan jokabide berbera ez izateko arrazoirik. Problematikoagoa da aipatu ditugun eta J. A. Mujika ta P. Altunak ere ermandako gainerako salbuespen ugarietara kausalitate bera hedatzeko bidea, baina ate hori ere zabalik utzi behar dugula iruditzen zaigu, ikerketa zehatzek besterik frogatu arte.

Berriki azaldu ditugun adibide askoren arabera pentsa likete, A. Eguzkitzak

(1988: 340) dioen bezala, arrazoi sintaktiko batek erabaki dezakeela, hots, *-na* konplementatzalea duen menpeko perpausetik —izen sintagma baten barruan dagoen perpaus batetik— ezer atera ezin daitekeela kausa, autoreak muga hori gainditzen duenean, ezinbestean *-ladun* konpletiboa baliatu behar duela, izan ere, adibide askotan hori gertatzen delako susmoa egin daiteke eta.¹⁹ Baliteke hau beste faktore eraginkor bat izatea, baina Fray Bartolomeren hizkeran bederen, azalpen honek ez du gogobetzen: ikusi dugun legez, *-la/-na* aukera ez du hainbat kasutan²⁰ esplikatzen eta, are gehiago, hogei kasutan edo gehiagotan nabarmenzen denez, *-na* konplementatzalea ez da derrigorrezko perpaus-muga markinar idazlearentzat.²¹

Hortaz, honako hipotesi hau egin genezake: zenbait faktorek eragiten duke *-la/-na* aukeran baina ez ezinbestean, hots, ez autorearen askatasuna ukatu arte, aurresuposizio semantikoa eraginkorrenetariko bat izanik, proposizioaren *de factotasunarekin* lotzen denean; aditz batzu faktibotasun hori adierazten espezializatu dira eta hala dute beren nukleo semikoan. Hortaz, oso ugariak dira honelako proposizioak egiten dituzten konpletiboa sortzen baina beste aditz mota askok ere sor ditzakete. Beste aldetik, *de factotzat* zer hartzen den, testu-inguruan aztertu behar da maiz, alegia, zer ematen den jakin eta *de factotzat*. Badirudi, hala ere, faktibotasunak ez duela ezinbestean *-naren* aukera eragiten, borondateak ere hortxe jokatzen duela.

Gauzak jakintzat, nabarmenzat, ezaguntzat ematen direnean, itxaron daiteke sarritan mintzagaiak ere izatea —areago mintzaldi mota honetan, baina ez ezinbestean—. Dena den, ez dirudi berez faktore eragilea denik konkurrentea baizik. Halaber, mintzaldi mota honetan —eta ez ahaztu erretorikak testuotan duen balio aparta— aditz faktiboak, mintzagaiak eta tesiak J.A. Mujikaren arabera bakoitza bere mailan,²² batera gertatzen dira; hala ere, honek ez du asko argitzen.

Borondateari bagagozkio, bi ezaugarrí eta printzipio plantea daitezke:

1. *-na* balio intentsiboago batez aukeratzen da, hots, faktibotasuna azpimarratu nahi denean.
2. Aukera estilistikoak ere izan daitezke. Agian, *-naren* aldeko aukeraren ugaritasunak aldatzen ari den egoera bat islada dezake. Hasieran intencionatu eta aldizkakoa zena, intentziorik gabeko eta iraunkor bihurtzen ari da. Baliteke asmo diakronikoaz ebaketa egin dugun hizkuntz egoerak honelako transizio bat islatzea. Jatorriz *-la* izan zitekeen oposizio baten termino ez-markatuaren morfema eta *-na* markatuarena. Baliteke oposizioa Fray Bartolomeren garaian aldatzen egotea eta erabilkera [+intentsiboa] [+faktitiboa] / [-intentsiboa] [+faktitiboa] izatetik, [+faktiboa]/[-faktiboa] izatera igarotzea. Fray Bartolomek, bere garaiko beste markinar idazleak baino libreago, transizio-egoera islada dezake: joerak bai, elementu kontradiktorioak, arau hautsiezinkik ez. Izan ere, ia berrehun urte igaro dira eta gaur egungo adineko hiztunek aditz-mota bat aukeratuta, *-na* erabili ohi dute, gazteagoen kontua, ordea, beste hainbatetan bezala, beste kontu bat da.

(19) Ikus, aurrekoez gainera, corpuseko (2), (42), (69), (83) eta (115) adibideak.

(20) Ikus, besteari beste, (81) eta (113).

(21) Ikus (4), (6), (30), (39), (41), (43), (51), (60), (64), (72), (82), (92), (96), (98), (99), (100), (103), (108), (119) eta (124).

(22) Aditzaren tasuna, topikoa, diskurtso-mota.

Bibliografia

- Altube, S., 1929, *Erderismos*, Euskaltzaindia, Gernika.
- Altuna, P., 1981, "Fray Bartolomez puntu batzuk", *Euskeria*, XXVI-1 (2. aldia), 367-377.
- _____, 1986, *Fray Bartolomeren Euscal-errijetaco olgueta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*, Ediciones Deusto, Bilbo.
- Arejita, A., 1983, *Euskal Joskera*, Leopoldo Zugaza, Durango.
- _____, Etxebarria, J.M., Irazola, J.M., Uriarte, J., 1989, *Bizkaierazko joskera*, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Azkue, R.M., 1969, *Morfología vasca. La Gran Enciclopedia Vasca*, Bilbo.
- Eguzkitza, A., 1988, "Aditz eta predikatu faktiboak" In *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskara Biltzarra*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, I, 335-341.
- Fray Bartolome, 1816, *Jaungoicoaren amar aguindubetako lelengo bosteen icasiquizunac, Aita Prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortezeco Predicadoriac ateraac. I. Zatija. Biar dan ondo izatiagaz*, Rada Alargunaren moldiztegian, Iruñea.
- _____, 1817, *Jaungoicoaren amar aguindubetako azqueneko bosteen icasiquizunac, Aita Prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortezeco Predicadoriac ateraac. II. Zatija. Biar dan ondo izatiagaz*, Rada Alargunaren moldiztegian, Iruñea.
- _____, 1819, *Elizaco zazpi Sacramentuben icasiquizunac, Aita Prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortezeco Prioriac ateraac. II. Zatija. Biar dan ondo izatiagaz*. Iruña. Rada Alargunaren moldiztegian.
- Goenaga, P., 1980, *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia.
- _____, 1986, "Konpletiboak, zehargalderak eta erlatiboak" In P. Salaburu (arg.), *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, EHU-UPV, Bilbo.
- Mitxelena, L., 1988, *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia.
- Mujika, J. A., 1982, "-(e)la eta beste konpletibatzaileak", *Euskeria*, XXVII-1 (2.aldia), 293-327.
- _____, 1985, "Zenbait konpletibaren azterketa J. Leizarragan", *Euskeria*, XXV-2 (2. aldia), 397-629.
- Mujika, L. M., 1986, *Fray Bartolomeren Euscal-errijetaco olgueta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Txillardegi, 1978, *Euskal gramatika*, Ediciones Vascas, Donostia.
- Varii, 1983, *Euskal dialektoziaren hastapenak*, UEU, Iruñea.